

2020KO GETXOKO ERAKUSLEIHOEN XXX. LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

GETXO ENPRESAK deitutako lehiaketa honetan udalerriko enpresek (merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak) parte har dezakete, elkarteko kide izan ala ez. Honako ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- **ERAKUSLEIHO FISIKOA**, hau da, herritarrek kanpoaldetik ikusteko moduan dauden establezimenduko elementuak, produktuak erakusteko espazio bat izan ala ez.
- **ERAKUSLEIHO BIRTUALA**, hau da, enpresaren webgunea edo sarea sozialak. Azken horien kasuan, lehiaketan izena eman aurreko bi hilabeteetan, gutxienez, argitalpenak izan behar dituzte.

Modalitate horretan parte hartu ahal izango dute soilik enpresa, kate edo talde handien parte ez diren edo halakoek kudeatzen ez dituzten webgune edo sare sozialek.

HELBURUAK

Kanpoko irudia, fisikoa nahiz birtuala, zaintzen duten tokiko enpresen lana eta profesionaltasuna aitortzea eta saritzea.

GAIA

Librea, edozein teknika eta estilo erabiliz. Erakusleiho fisikoak eta birtualak bat etorri behar dira enpresak gauzatzen duen jarduera ekonomikoarekin.

Gai erasokor, diskriminatzaile edo iraingarriren bat garatzen bada edo ingurumenari eraso egiten dioten elementuak erabiltzen badira, enpresa kanporatu egingo da.

EPAIMAHAIA

Getxo Enpresak izendatuko du epaimahaia, eta honako arlo hauetako profesionalak osatuko dute soil-soilik: erakusleiho-apainketa, diseinua, informatika eta teknologia berriak.

Epaimahai Profesionalak 2020ko abenduaren 10etik 15era arte lehiaketara aurkeztuko diren erakusleiho fisiko eta birtualak baloratuko ditu, eta, egoki iriztekotan, sariak hutsik geldituko direla adierazi ahal izango du. Erabakia apelaezina izango da.

EPAIMAHAIAREN BALORAZIO IRIZPIDEAK

Erakusleiho fisikoetan:

- **Multzo estetiko**a (Lehen inpresioa, atsegingarritasuna).
- **Ideia** (proposamen arriskatua, ezberdina).
- **Egikaritze-prozesua** (ideiaren garapena).
- **Argiztapena**.
- **Kalitatea**.
- **Koherentzia** enpresak egiten duen **jarduerarekin**. **Azken irizpide hori lehiaketako erakusleiho bakoitzaren puntuazioaren % 50 izango da.**

Erakusleiho birtualetan - (webguneetan):

- **Nortasuna** (logotipoa, nortzuk garen, harremanetarako).
- **Erabiltzailearen esperientzia** (kargatzeko denbora, kontrasteak, testuen tamainak, etab.)
- **Nabigazioa** (menuak, argitasuna, elementu kopurua)
- **Edukia** (koherentea, antolatua, irakurterraza, ikus-entzunezko edukiaren kalitatea)
- **Hitz gako**en erabilera (jarduerarekin lotutako hitz esanguratsuak dauzkaten testuak).

Erakusleiho birtualetan - (Sare sozialak):

- **Testuak eta mezuak**.
- **Edukia** (koherentea, antolatua, irakurterraza, ikus-entzunezko edukiaren kalitatea)
- **Argitalpenen periodikotasuna**.
- **Irismena eta interakzioak** (Atsegin dut, Partekatu, Iruzkinak).

Sare sozialetako profil edo/eta webgune bat baino gehiagorekin parte hartzen bada, balorazioa modu bateratuan egingo da. Hala, balorazio bakarra igorriko da enpresa bakoitzeko.

SARIAK

ERAKUSLEIHO FISIKOEN SAILKAPEN OROKORRA

1. **saria:** Bitxigintza pieza + gozoen otarra + 18 publizitate modulu prentsa idatzian.
2. **saria:** Edertasun tratamendua + Gabonetako otarra + 18 publizitate modulu prentsa idatzian.
3. **saria:** 2 pertsonarentzako egonaldia hotel batean, spa-tratamenduarekin + kontserben lotea + 12 publizitate modulu prentsa idatzian.
4. **saria:** Edertasun tratamendua + esperientzia nautikoa + 8 publizitate modulu prentsa idatzian.
5. **saria:** Bitxigintza pieza + 8 publizitate modulu prentsa idatzian.
6. **saria:** Esperientzia nautikoa + 8 publizitate modulu prentsa idatzian.
7. **saria:** Kontserben lotea. + 40 kuña
8. **saria:** Gozoen otarra + 30 kuña.
9. **saria:** Gozoen otarra + 20 kuña.
10. **saria:** Kontserben lotea + 20 kuña.

11. **saria:** Gabonetako otarra.

12. **saria:** Kontserben lotea.

13. **saria:** Gozoen otarra.

ERAKUSLEIHO BIRTUALEN SAILKAPEN OROKORRA

1. **saria:** 2 pertsonarentzako egonaldia hotel batean + bitxigintza pieza + 12 publizitate modulu prentsa idatzian.

2. **saria:** Esperientzia nautikoa + gozoen otarra + irrati saioa zuzenean.

3. **saria:** Esperientzia nautikoa + edertasun otarra + 12 publizitate modulu prentsa idatzian.

4. **saria:** Bitxigintza pieza + 10 publizitate modulu prentsa idatzian.

5. **saria:** Esperientzia nautikoa + 8 publizitate modulu prentsa idatzian.

6. **saria:** Bitxigintza pieza + 6 publizitate modulu prentsa idatzian.

7. **saria:** Kontserben lotea + 40 kuña.

8. **saria:** Kontserben lotea + 30 kuña .

9. **saria:** Gozoen otarra + 20 kuña .

10. **saria:** Gabonetako otarra.

11. **saria:** Gozoen otarra.

Enpresa batek ezingo du erakusleiho fisikoaren eta erakusleiho birtualaren kategorietako saria lortu, eta saria puntuaziorik altuena lortzen duen kategoriagatik emango da. Helburua da sariak ahalik eta enpresa kopuru handienaren artean banatzea.

GOGOKOEN DITUZTEN ERAKUSLEIHO FISIKOETAN EGINDAKO SELFIEAK EDO BIDEOAK PARTEKATZEN DITUZTENENTZAKO SARIAK

Gainera, 2 sari zozketatuko dira sare sozialetan gogokoen dituzten erakusleiho fisikoetan egindako selfieak edo bideoak partekatzen dituztenen artean.

Saria jasotzeko hautagai izateko eta parte-hartzea baliozkoa izateko, parte-hartzaileak Facebook edo/eta Twitter kontua izan beharko du, profil publikoarekin, eta honakoa egin beharko du abenduaren 15a baino lehen:

1. Selfie edo bideo bat egin parte hartzen duten erakusleiho fisiko gogokoenean.
2. Facebooken edo Twitterren @aipatu argazkia edo bideoa egin den establezimendua eta @getxoenpresa.
3. Argazkia edo bideoa #30concursoescaparatesgetxo traolarekin etiketatu.
4. Facebook edota Twitter-en argazkia partekatu.

Establezimendu bakoitzeko argazki edo bideo bakarra igo daiteke, hala ere, saltoki bat baino gehiagotan atera daitezke argazkiak edo bideoak, eta hauetan ateratako argazki edo bideo bakoitzak sariak lortzeko aukera izango dute.

Selfie edo bideorik originalenak eta sormen gehien erakusten dutenak aurkezten dituztenei emango zaizkie sariak, eta internet bidezko komunikazioko profesionalak hartuko dute erabakia.

Gogokoen dituzten erakusleihatetan egindako selfieak sare sozialetan partekatzen dituztenen artean emandako 2 sariak ezingo dira pertsona berarentzat izan.

Abenduaren 16an jakinaraziko dira saridunak, eta Getxo Enpresa haiekin harremanetan jarriko da sariak emateko.

Parte-hartzaileek doan lagatzen diote Getxo Enpresari aurkeztutako irudiengatik egokitu ahal zaizkien eskubide mota oro; zehazki, ondare izaerako jabetza intelektualeko eskubideak eta erreprodukziokoak, distribuziokoak, publikoaren esku jartzekoak, transformaziokoak, etab.

IZENA EMATEA ETA PARTE-HARTZEA

Enpresa bazkideak: DOAN

Bazkide ez diren enpresak: 30€ + % 21eko BEZa

Lehiaketan parte hartzeak honakoak ekarriko dizkie enpresei:

- Inskripzio modalitate batean edo gehiagotan parte hartzea.
- Enpresaren publizitatea eta promozioa.
- Lehiaketako sariak eskuratzeko aukera.

Abenduaren 9ko 12:00ak baino lehen eman behar da izena lehiaketan, www.getxoenpresa.com webgunearen bidez, posta elektronikoz (info@getxoenpresa.com) edo Getxo Enpresaren egoitzan. Honako hauek adierazi behar dira: izen komertziala, jarduera ekonomikoa, lehiaketara aurkezten den/diren establezimenduaren/establezimenduen helbidea/k eta telefonoa eta, hala badagokio, lehiaketara aurkezten den enpresaren webgunearen helbidea eta sare sozialetako izena edo esteka.

Getxo Enpresaren kide ez diren enpresek izena emateko zenbatekoa ordaindu beharko dute www.getxoenpresa.com webgunearen bidez edo erakundeak emandako kontu korrontean.

Erakusleiho fisikoko modalitatean parte hartzen duten enpresek lehiaketara aurkeztuko duten erakusleihoaren argazki bat (formatu horizontalean, .jpg edo .png formatuan eta bereizmen onarekin)

bidali beharko dute posta elektronikoz, info@getxoenpresa.com helbidera, erakusleihoa atondu bezain laster, eta betiere abenduaren 9ko 12:00ak baino lehen.

Erakusleiho fisikoa modalitatean parte hartzen duten enpresek lehiaketaren kartela jarri beharko dute ikusgai. Getxo Enpresak emango die kartela, eta lehiaketan aurkezten duten erakusleihorekin kanpoko aldetik ikusteko moduan jarri beharko dute. Ez bada hala egiten, enpresa lehiaketatik kanporatuko da.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak osorik onartzea dakar. Gainera, Getxo Enpresak, erakunde antolatzailea izanik, oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein gairi buruz erabakia hartzeko eskubidea gordetzen du.

GETXO ENPRESAK, G48204655 IFK zenbakia duenak, zure datu pertsonalen tratamenduaren arduradunak, jakinarazten dizu, 2016ko apirilaren 27ko Datuen Babesaren Araudi Orokorrean adierazitakoaren arabera, zure datu pertsonalak jaso eta tratatzeko orduan araudi horrek finkatutako neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak aplikatzen dituela, arduradunaren produktu eta zerbitzuak eskaintzeko asmoz, baita edonolako jakinarazpen bidaltzeko asmoz ere, hartara izendatutako bitartekoen bidez. Zuk, ukitutako edo interesdun gisa, eta datuen titular gisa, zeure adostasuna eta baimena ematen dituzu datuok arduradunaren datu-basean sartzeko. Nolanahi ere, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, mugatzeko, lekualdatzeko eta aurka egiteko eskubideak dohainik bete ditzakezu, arduradunarengana joz: Arene kalea 22, Getxo, 48991, Bizkaia. Gutunean "RGPD" (Datuen Babesaren Araudi Orokorra) erreferentzia aipatu beharko duzu.